

## Hizkuntzaren funanbulistak. Hizkuntza-sozializazioa kirol eremuan adin eta generoan ardaztuta

**Tesiaren egilea:** Jaime Altuna Ramírez

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila/Institutua:** Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila

**Doktorego-programa:** Ikasketa Feministak eta Generokoak

**Jakintza-arloa:** Gizarte Antropologia

**Tesi-zuzendaria:** Jone Miren Hernández García

**Tesiaren laburpena:**

Doktorego-tesi honetan nerabezaroan gertatzen den hizkuntza-sozializazioan sakondu dut. Euskararen biziberritze-prozesuaren barnean gaur egun dauden hizkuntza-dinamika batzuk aztertu ditut, ikerketa etnografiko baten bidez. Aisialdiaren esparruko eremu ez-formalean garatu dudana esperientzia etnografikoaren bidez, euskararen inguruan egin diren azterketetan antzemandako bi gabeziari aurre egin nahi izan diet. Batetik, gazteen ikuspegia eta ahotsa ikerketaren oinarria izaten saiatu naiz, eta adinaren kategorizazioak eta hari lotutako ezaugarri sozial eta kulturalak hizkuntza-praktiketan eta ideologietan duten eragina aztertu dut. Bestetik, hizkuntza gutxitua dagoen testuinguru batean generoa aldagaia hizkuntza-dinamikekin nola gurutzatzen den esploratu dut. Ikerketan, beraz, zenbait neraberen hizkuntza-praktikak, bizipenak, ideologiak eta gogoetak jaso ditut. Batez ere, gaur egun Euskal Herrian 11-16 urte bitarteko gazteen arteko hizkuntza-dinamiken berri jaso dut, aktoreen iritzietatik eta hausnarketatik abiatuta. Horretarako behaketak, elkarrizketak eta talde-eztabaidak egin ditut. Ikerketa kirol-eremuko hamar taldetan (10 praktika-komunitate) egin da 130 neraberekin.

Ikerketak berretsi digu neraberen egunerokoan aisialdian garatzen dituzten jarduerak garrantzitsuak direla eta aisialdiko eremu ez-formalean garatzen dituzten talde-jarduerak harremana dutela haien hizkuntza-praktika eta ideologiekin, hau da, eremu ez-formalaren hizkuntza-eragina oso kontuan hartzekoa dela. Bestetik, euskararen gaitasunean eta erabilera sozialean garrantzizkoak diren elementu orokor batzuk identifikatu ditut: (1) neraberen esperientzia linguistikoaren problematizazioaren oztopoa; (2) testuinguruaren eta testuinguruaren iruditegiaren eragina; eta (3) gazte-kulturaren garrantzia. Hizkuntza-praktika horien nolakotasunari begira ondorioztatu dut neraberen hizketaldietan hizkuntzak eta hizkerak nahasteko joera hautu estetiko eta ideologikoa (ere) badela. Hizkuntza-mudei dagokienez, nerabezaroan esanguratsuak diren aldaketak gertatzen direla jaso dut, mudarena prozesu metagarria, negoziatua, irekia eta dinamikoa dela ondorioztatuz.

Bestalde, ikusi ahal izan dut genero-sozializazioak bideratutako gorputz-dinamikek eta jarduerak eragina dutela nerabeen hizkuntza-praktiketan. Euskararekiko arduraren eta generoaren arteko lotura badagoela ikusi dut, euskararen biziberritzearen aldeko lanak eta funtzioak feminitateari lotuago jarraitzen duela erakusten duten zenbait elementu jaso baititut. Azkenik, hizkuntza-erabileren bidez genero-eta botere-harremanen adierazpena topa daitekeela ondorioztatu dut.